

ANTONIO VALVERDE CASAS (1915-1970)

1970eko uztailaren 28an hil zen Oiartzunen. Antonio Valverde, Errenderian jaioa zen 1915eko urtarrilaren 17an.

Gure artean, bere lan askotan izenpetzen zuen «Ayalde» ere ezagutzen genuen. Zaragoza-ko Unibersidadean Derecho lizentziatura egina zuen. Donostiako Gráficas Valverde-ko nagusia, pintore bikaina eta idazle ona. 1961etik Euskaltzaindiko laguntzaile genuen.

Euskaraz, «El Bidasoa», «Egan», «Olerti», «Zeruko Argia», «Jakín» aldizkarietan kolaboratu zuen, maiz bere dibujekin. Erdaraz ere asko idatzia zen «La Voz de España» eta «El Diario Vasco» Donostiako egunkarietan.

Argitaratu zituen liburuak, erdaraz, *Con fondo de chistu* (Donostia, 1965), eta euskaraz, *Ibar ixillean* (Donostia, 1970). Liburu biak bere dibujuak dituzte. Pio Baroja-ren *Mari Beltxa* euskarara itzuli zuen eta 1956-an «Egan» en argitaratua da.

Errenderiarra bazen ere, jaiotzez ez zen euskalduna; nagusitu ondorean ikasi zuen euskaraz, baina oso ondo egiten zuen, hobeto esan, ez zitzaion igartzen euskaraz gero ikasitakoa zenik. Pintoreaz gainera, oso kritikiko fiña zen arte gaietan, bere *Ibar ixillean* liburuan Regoyos eta Euskal eskolari buruz agertzen dituen hitzaldietan ongi nabari dan bezala. Bi hitzaldiok, euskaraz zenbait tokitan emanak zituen.

Euskaltzaindiak azken urte hauetan euskaltzain edo laguntzaile izendatzen dituenek, berak gertatutako diploma agiriak ematen dizkiote. Beraz, Euskaltzaindira datozten berrieri ez zaie faltatuko bere oroitzua. G. B.

J. S. M.

DOMINGO SOUBELET (1897-1970)

Baionan, Hiriburuko apez-xahartegian hil zen Domingo Soubelet jaun kalonje eta euskaltzaina, 1970eko uztailaren 28an. Hazparnen sortua zen 1897ko abuztuaren 10ean.

Lehen mailako ikasgoak Hazparnen, bigarren mailakoak Beñen eta apezgoarakoak Baionako Seminario handian eginak zituen.

1924ko uztailaren 13an apeztu zen. 1926an, bi urtez, Erroman teologiako lizentza bildu. Geroztik, bikario Donibane Lohizunen bi urte, bikario Baionako Katedralean bertze bi urte, 1930etik 1937ra jaun Apezpikuaren segretario. 1933an ohorezko kalonje izendatu zuten. Hamar urtez (1937-1947) Azkarateko erretor, bere osasunagatik. Bertze hamar urte Hazparneko misionest. 1967an Hiriburuko apez-xaharren etxerat bildu behartu zitzaion, bertan heriotzak eraman arte. (G. B.)

Eskuaraz hanitz lan egina zen: eskuarazko predikari ederra izana; zazpi urtez *Eskualduna* astekariaren buruzagi eta moldatzaile (1930-1937), eta zazpi urte horietan *Gure Almanaka* jalgi. Izkribatzaile bezala, pentsatzen zuen arrazoinekin behar zirela nasaiki izkiritu onak ager-erazi. Onak eta irakur-errexak. Hots, morala azkar bati zagon, teologia gorenerat bakan helduz, irakurtzaileari ez kausi beldurrez. Hazparneko eskuara zerabilkan doi-doia panpinaturik. Erran beharrak hitz gutiz emaiten zituen, labur eta motz, irakurlea ez zadin gal zirikorda luzegietan. Bainan hitzak beti xuxen heldu zitzaizkon, indarrez beterik. Eskuaraz zortzi liburu ager-erazi zituen: *Lurdeko Ama Birjina*; *Fatimako Ama Birjina*; *Buloneko Ama Birjina*; *San Josep*; *Jesusen bibotz sakratua*; *Petaïn Marexala*; *Maria Goretti*; eta *Jesus*. Komedia bat ere bai: *Iturriko kalakariak*. Eta erdarazko liburu bat: *Le bienheureux François Dardan*.

Laburki, hau zen gizona, herria zerbitzatu zuen apez eta izkribatzaile kartsua (1).

P. L.

RIKARDO ARREGUI ARAMBURU

Rikardo Arregi Aramburu Andoainen jaio zen, 1942-ko irailaren 22-an.

Eta hil, 1969-ko uztailaren 10-ean hil zen, auto-ixtripu batean, Motrikuko lurraldetan (Mendaro ondoan), Bilbaorako bi-dean Euskaltzaindiaren Biltzarre batera zihoela.

Rikardo euskal herrietan oso ezaguna zen, euskal kulturagintzako gazteetarik ezagunena, dudarik gabe. Ezaguna bezin estima-

(1) Bere bizitzaren xehetasun gehiago *Herria* (1044 zenb.) astekarian aurkituko dugu, 1970eko agorrilaren 6koan. (A. O.).